



## **EHUren XXXX. UDA IKASTAROAK XXXIII. EUROPAR IKASTAROAK**

**Carlos Santamaria zentroa. Donostia**

### **Gaia: HERRITARRENGANDIK HURBILAGO EGONGO DEN ADMINISTRAZIORANTZ AURRERA EGITEKO TRESNAK**

**2021, irailak 16-17**

Administrazio publikoak erabateko zentzua lortzen du herritarrei egiten dien zerbitzuan. Horregatik, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, 3. artikuluan, honako hauek ezartzen ditu beren jardueran bete beharreko printzipioen artean: herritarrei zerbitzu eraginkorra egitea, sinpletasuna, argitasuna eta pertsonetikiko hurbiltasuna, edo administrazio publikoen arteko lankidetzeta, laguntza eta koordinazioa.

Horregatik, ezinbestekoak dira zerbitzu publikora bideratutako kudeaketa, informazio argia eta gardena, bide desberdinen bitartez emana eta pertsonen bereizgarrietara egokitua.

Administrazioaren eta gizartearen beraren digitalizazioa esponentzialki ari da aurrera egiten, eta are gehiago egingo du datozen hilabeteetan, COVID-19ari aurre egiteko onartutako neurrien ondorioz eta Europar Batasunak Europarako Suspertze Planean berreraikitzeke onartu dituen funtsak aplikatzearen ondorioz, azken horrek trantsizio ekologikoan eta digitalean inbertitzen lagunduko baitu. Horretarako, berriztatu egin behar dira administrazioak berak eta beraien lan-prozesuak, inor baztertuko ez duen zerbitzu azkarra, eraginkorra eta enpatikoa egiteko eta pertsona batzuen arrakala digitala gainditzeko neurriak hartzeko, izan ere, pertsona horiek, arrazoi ekonomikoak edo gaitasunezkoak direla medio, ezin dituzte bitarteko horiek eskuratu. Horrela, bazterketa digitala eta horren ondorioak saihestuko dira.

Egiaz, COVID-19aren krisiak agerian jarri du, dudarik gabe, bitarteko telematikoen protagonismoa eta horien garrantzia itxialdi orokorrean, baina administrazio publikoek aldi honetan izan dituen disfuntzioak ere nabarmendu ditu.



Horren ondorioz, Arartekoak, 4/2020 Gomendio Orokorren bitartez, euskal administrazio publiko guztiei berariaz eskatu die beharrezko neurriak indartu ditzatela, behar bezala funtziona dezaten ez bakarrik arreta telematikoak, baizik eta baita ere telefono bidezkoak eta aurrez aurrekoak, herritarrak egoki artatzeko (4/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko azaroaren 5ekoa. *Herritarrenganako arreta indartzeko beharra, administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak baliatzean kalteak saihesteko eta bazterkeria digitalaren kontra borrokatzeko neurriak hartzeko larrialdi egoeretan, COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeretan, besteak beste*).

Herritarren beharrei erantzun egokia emate aldera, administrazio publikoak hainbat tresna erabili behar ditu modu proaktiboan. Arartekoaren uda ikastaro honen helburua da horretarako tresna batzuk aztertzea, ahalik eta jarduerarik onenak gauza daitezzen.

**Norentzat da ikastaro hau:** ikasleentzat, administrazio publikoko hainbat sistematako profesionalentzat, kudeatzaile eta zuzendari publikoentzat, elkarteentzat, defentsa-erakundeentzat eta kudeaketa publikoko adituentzat.



## EGITARAUA

### **Irailak 16. Lehen saioa**

- 9:00 **Akreditazioak eta agiriak ematea**
- 9:15 **Ikastaroaren hasiera**  
Arartekoa eta EHUko ordezkari bat.
- 9:30 **I. ponentzia: Administrazio publikoak nola erantzun die herritarrei beharrei COVID-19aren izurri-aldian? Diagnostikoa eta hobetzeko proposamenak.**
- Aurkezpena: Inmaculada de Miguel. Arartekoko Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko zuzendaria.
- Hizlaria: Carles Ramió Matas. Erakundeen Plangintza eta Ebaluazioko errektoreordea. Politika- eta Administrazio- Zientziako katedraduna, Pompeu Fabra Unibertsitatean.
- 10:00 **II. ponentzia: Eraldaketa digitala, administrazio publikoa eta herritarren eskubideak.**
- Hizlaria: Rafael Jiménez Asensio. Unibertsitateko katedraduna (akreditatua). Administrazio Publikoetako aholkularia.
- 10:30 **Eztabaida**
- 11:00 **Atsedena**
- 11:30 **I. Mahai ingurua: Herritarren eskubideak eta administrazio digitala**
- Moderatzailea: María Luisa Aguirreche. Arartekoaren Europako eta nazioarteko gaien bulegoko arduraduna.
- Parte-hartzaileak:
- Linnar Viik. Aholkularia eta aditu independentea adimen artifizialean eta digitalizazioan, Estonia.
  - Javier Bikandi Irazabal. Herritarrentzako Arretarako eta Zerbitzu Digitaleko zuzendaria. Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saila.
  - Iñaki Vicuña de Nicolás. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Dokumentazio Judizialaren Zentroko zuzendaria. Adimen artifizialaren erronkak eta sistema judizialean algoritmoak erabiltzea.
- 13:30 **Lehen saioaren amaiera**



## **Irailak 17. Bigarren saioa**

### **9:15 II. Mahai ingurua: Informazioa eta gardentasuna administrazio publikoetan. Herritarren konfiantza oinarritzat hartzea**

Moderatzailea: Eva Domaica. Kazetaria. Cadena SER-eko edukien zuzendaria Euskadin.

Parte-hartzaileak:

- Joaquín Meseguer. Gaztela eta Leongo Juntako Gardentasuneko zuzendari nagusia.
- Elisa de la Nuez Sánchez-Cascado. Estatuko abokatua eta Hay Derecho fundazioko idazkari nagusia.
- Elisabet Samarra i Gallego. Informazio Publikoa Eskuratzeko Eskubidea Bermatzeko Batzordeko presidentea.
- Miguel Ángel Blanes. Valentziako Erkidegoko Síndic de Greugeseko teknikari juridikoa.

### **11:15 Atsedena**

### **11:45 III. Mahai ingurua: Administrazioa herritarrei hurbiltzeko tresnak: hizkuntza eta komunikazioa hobetzea**

Moderatzailea: Aitor Guenaga. Kazetaria eta komunikazio aholkularia.

Parte-hartzaileak:

- Reinier van Zutphen. Nationale Ombudsman, Herbehereak.
- Burkhard Margies. Administrazio Komunikazioko Institutua, Speyer.
- Blanca Mata. Euskadiko Irakurketa Errazeko arduraduna.
- Mario Tascón. Prodigioso Volcán.

### **13:45 Itxiera**

Inés Ibáñez de Maeztu. Arartekoaren ondokoa